

BARNE ARAUDI

I. SARRERA

II. HAINBAT GAI ALDEZ AURRETIK.

III. ARAUKETA.

- 1. Aplikazio esparrua.**
- 2. Lan egutegia.**
- 3. Ordutegiak.**
- 4. Lanorduaren murrizketa.**
- 5. Oporraldiak.**
- 6. Ordaindutako baimenak.**
- 7. Lan - utzialdiak.**
- 8. Ordain ekonomikoak.**
- 9. Presoak**
- 10. Ezintasun iragankorragatiko bajak.**
- 11. Lan Osasuna.**
- 12. Segurua.**
- 13. Erretiroak.**
- 14. Formazioa.**
- 15. Plan estrategikoak.**
- 16. Frogarako epea.**
- 17. Batera ezintasunak.**
- 18. Sindikatuan baja ematea.**
- 19. Hutsegiteak eta neurriak.**
- 20. Isun ekonomikoak.**
- 21. Barne araudiaren interpretazioa.**
- 22. Araudi honen ezarpena.**



I.- SARRERA

Pasa dan urtean Tolosan burututako V. Biltzar Nagusiko bigarren zatian erabakitakoari jarraituz, txosten honen aurkezpena Barne Araudiari buruzko eztabaidaren hasiera da. Kongresu horretan erabaki genuen, sindikatuaren beharra den heinean, bertan onestutako Estatutuak osatuko dituen barne araudia behar genuela.

Barne araudi hau ez da ohizko hitzarmen kolektibo bat, aitzitik, sindikatuan ditugun bi beharrei erantzuteko denboran zehar egituretan hartu izan diren hainbat erabakien bilketa da. Ezinbestekoa baita batetik, sindikatuan dedikazio osoz aritzen diren militanteek planteatzen dituzten beharrei erantzutea eta bestetik, sindikatuak bertako militanteek bere lana betetzeko orduan dituzten harreman - baldintzak arautu behar dituelako.

Egoera anitzei aurre egiteko banan banan hartu behar izan ditugun erabakien bilketa egiteaz gain, osagarriak diren gai berriak ere jaso ditugu.

Bestetik, hau ezin da Araudi itxia bat izan; alderantziz, egoera berriak sortzen diren heinean eguneratu beharko dugu.

II.- HAINBAT GAI ALDEZ AURRETIK

Gurea bezalako erakunde batean badaude gaiak dedikazio osoko militante ororentzat oinarritzekoak izanik, onartuak eta beteak izateko barne araudi batean jasotzerik behar ez dutenak. Hauek dira horietako batzuk:

- ⇒ **Proiektuarekin identifikazioa.** Estatutuetan zein Biltzar Nagusiko ebazpenetan jasota dagoen moduan, LABek, erakunde soziopolitikoak den heinean, proiektu sindikal eta politiko oso definitua defendatzen du. Beraz, LABen dedikazio osoz militatzeko asmoa duen edonork proiektu hori onartu eta defendatu behar du argi eta garbi.
- ⇒ **Konpromiso militantea.** Sindikatuan dedikazio osoz diharduten pertsonen konpromiso militantetzat jotzen dugu, beste interesekiko lehentasuna emanez, LABera afiliatutako langileok helburutzat daukagun proiektu sozio-politiko partekatuari ematen diona.
- ⇒ **Barne mailako dinamiketan parte hartzea.** Organo baterako aukeratua izan den dedikazio osoko pertsonarentzat organo hori lehenestera behartuta dago. Era berean, pertsona hauek sindikatuak egiten dituen deialdietan parte hartu beharko dute.
- ⇒ **Dedikazio osoa duten pertsonen profila.** Sindikatuan dedikazio osoz militatzeko asmoa duen pertsonak aurretik aipatutako hiru puntuak bere egin behar ditu. Era berean, esperientzia eta lanbide heziketa baloratuko da, baita gure hizkuntza behar adina ezagutzea ere.
- ⇒ **Dedikazio osoko pertsonen disponibilitatea.** Sindikatuan sartzen den pertsonak, ardura zehatz baterako sartuta ere, egiten diren apusturen arabera, hainbat egoera medio edo bestelako beharrek horrelakorik eskatzen dutelako, sindikatuak arduraz aldatzera behartu dakiokela barneratu behar du. Ardura berria hartu dezan, erakundeak alde aurretik beharrezkoa den formazioa bermatu beharko dio, eta era berean, edonolako ardura aldaketak dagokien pertsonen oniritzia jaso dezan, beharrezko jotzen dituen esfortzuak egin beharko ditu.

Eztabaidarako proposatzen dugun araudiaren lehen atalean bere aplikazio esparrua zehazten da. Hasierako fase batean, jakitun, sindikatutik dietak ez diren ordain ekonomikoren bat jasotzen duten dedikazio osoko militanteak diren pertsonetara mugatu gara. Baina lehentxeago beranduago baino, ordain ekonomikorik gabe izanda ere, eskubide eta betebeharrak hauek edo antzekoak eduki ditzaketan pertsona guztiei aplikatzea da gure asmoa. Bere zerbitzuak betetzen dituzten enpresekin akordio sindikalak edukitzeagatik dedikazio oso edo partzialerik militatzen duten pertsonen buruz ari gara.

III. ARAUKETA.

1.- APLIKAZIO ESPARRUA.

Lanaldi osoan edo zati batean dedikazio osoz sindikatuan aritu eta sindikatutik 8. artikuluko c) atalean jasotzen ez den ordain ekonomikoa eskuratzen duten pertsona guztiei aplikatuko zaie.

2.- LAN EGUTEGIA.

Indarrean dagoen urtea amaitu arretik eta sektoreko egitura nazional zein Eskualdeko Idazkaritzan proposamenak bildu eta gero, Nazio Komiteak hurrengo urteko lan egutegia onartuko du.

Egutegi hau dedikazio osoa duen pertsona orok ezagutu eta bete beharko du.

3.- ORDUTEGIAK.

Egoitzetako ordutegia goizeko 9:00ak eta 13:30ak arte eta arratseko 16:00ak eta 19:00ak arte izanen da.

Erabateko arduraldian dihardutenei ere dagokie delako ordutegia betetzea. Dena den, ez dezakete baztertu beren ardurak eragindako zereginak beste ordutegi batean egin behar izana.

Uztaila eta Abuztuan lanordua jarraian egingo da, 8:00tatik 14:00ak arte.

4.- LANORDUAREN MURRIZKETA.

Zazpi urte bete ez dituen seme - alaba zaintzeko edo bere gain duen pertsona gaixo zein ezindua zaintzeko bada, Nazio Komiteak horrela eskatzen duen pertsonaren lanordua murrizteko aukerak aztertuko ditu. Murriztuz gero, jasotzen ari zen ordain ekonomikoa zein kotizazio basea proportzionalki murriztuko da ere.

5.- OPORRALDIAK.

Dedikazio osoa dutenek 31 eguneko oporraldia izango dute. Hauek uztaila eta abuztuan zehar hartuko dira: Nazio Komiteak erabakiko dituen behar bezala justifikaturiko salbuespenak izan ezik.

Amatasun/aitatasun bajak oporraldiarekin bat egiten duenean, beste hilabete batetan hartu daitezke opor egunak, urte naturalean beti ere. Beste aukera amatasun/aitatasun baimenari gehitzea da, alde zuzenetik dagokion pertsonak bere lurralde edo sektoreko egiturako idazkariarekin adostu behar duelarik.

6.- ORDAINDUTAKO BAIMENAK.

Aldez aurretik justifikatuz gero, dedikazio osoko pertsonak baimen hauek eduki ditzakete:

- a) **Ezkontza edo elkar bizitze heterosexual zein homosexualagatik:** 15 egun natural.
- b) **Etxe aldaketa dela eta:** 2 egun natural.
- c) **Aitatasuna:** 15 egun natural jaiotza, adopzioa edo harrera ematen denean. Lizentzia honek ez du zerikusirik amatasun baimenaren seigarren astetik aurrera amak aitari eman diezazkion egunekin.
- d) **Amatasuna/Aitatasuna:** Baimena 16 astetako izango da, erditze, adopzioa edota harrera anitza izanez gero seme - alaba bakoitiagatik bi aste gehituko direlarik. Aita eta amak enplegua edukitzekotan, amak aitari baimenaren aste batzuk, eman dakizkio.

Adopzio edo harrera kasutan ama eta aitaren esku geratuko da bien arteko baimena banaketa.

Sindikatuan dedikazio osoa duen aitak baimendutako aste bat gehiago izango du amak emandako aste batzuk hartzen baditu, beti ere, 5 aste edo gehiago hartzen baditu.

Bikoteko bi pertsonak enplegatuak direnean, dedikazio osoa duen pertsonak seme-alabak urtea bete arte 8 asteetan zehar asteko bi egunetan lanaldia jarraian egiteko eskubidea izango du amatasun/aitatasun baimena bukatzean berriro sartzen denean, lanordua 8tatik 14ak arte, edo 9tatik 15ak arte izango da. Txikiak urtea bete arteko gainontzeko hilabeteetan, lanordu hau astero egun batean egin ahal izango da.

“e) edoskitzea” atalean arautzen dena kontutan hartuaz, inkorporazioa edoskitze baimena metatu eta gero egiten bada, inkorporazio osteko 5 asteetan, zehaztutako lanordu jarraitua astean bitan egiteko eskubidea egongo da, eta astean behin umeak urtea bete arte geratzen den epean.

- e) **Edoskitzea:** Dedikazio osoko pertsonak edoskitze garaian (bederatzi hilabete) egunero ordu beteko geldineua egiteko eskubidea izango du, bitan zatitu dezakeena. Nahi izanez gero eta helburu berdinarekin, eskubide honen orde z lanordua ordubetez murrizteko aukera izango du.

Eskubide honen orde z baimendutako hiru aste hartu daitezke, amatasun edo aitatasun baimenaren jarraian hartu behar izango direlarik.

Biak etxetik kanpo lan eginez gero baimen hau, ordu beteko geldineua edo bere kasuan orduen metaketa, aitak zein amak hartu dezake.

- f) **Ama-aita, seme-alaba, bikote edo kidearen gaixotasun larria edo ospitalizazioa:** 2 egun . Modu altxanoan hartu daitezke babestutako egoera irauten duen bitartean.

g) **Aita-ama, seme-alaba, bikote edo kidearen heriotza:** 5 egun natural.

h) **Gainontzeko senitartekoen heriotza konsanginitate edo afinitateko 2. maila arte:** 2 egun natural.

Baimen guztiak hemen arautzen ditugun egoera babestuak ematen diren egunetik dira eraginkorrak.

Eskaera, ahalik eta azkarren egin beharko dena, eskatzaileari dagokion sektore, lurralde, arlo, kabinete... idazkariari bideratuko zaio.

7.- LAN UTZIALDIAK.

Gure erakundearen ezaugarriak kontuan hartuz, Nazio Komiteak aztertu eta erabakiko du premia handiko egoerei ekiteko lan-utzialdiaren aukera eta baldintzak, besteak beste, amatasunak, aitatasunak edota senideen zaintzak ekar ditzakeenak.

8.- ORDAIN EKONOMIKOAK.

a) Hileko ordainak.

Dedikazio osoz edo erabateko arduraldian dihardutenei hileko diru-ordainketa emango zaie. Delako kopurua sindikatuaren urteko aurrekontuen onespenerekin batera zehaztuko da.

b) Ez ohizko ordainak.

Bi ez ohizko ordain ekonomiko ezartzen dira eta hilabeteko ordainaren parekoa izango da. Ekaina eta Abenduan jasoko dira.

c) Bestelako ordain ekonomikoak.

Diru-konpentsaziotzat hartzen dugu kilometrajea, dieta, bidesaria, aparkatzea... dela-eta erabateko, bete-beteko edota zatiko arduraldiaz dihardutenek, nahiz eskualde edota sektoreko arduren bat betetzen dutenek jaso dezaketen diru-kopurua.

⇒ Honako konpentsazioak jasoko dituzte Sindikatuan erabateko arduraldiaz dihardutenek eta lan egiten duten enpresekin lotutako akordioen bidez sindikatuan erabateko arduraldiaz dihardutenek :

- Norberaren etxebizitza eta lantokiaren arteko distantzia 10 kilometro baino txikiagoa bada, sindikatuak ordainduko du garraio publikoaren kostua (autobusa, trena, metroa, topoa, etab). Distantzia aipaturiko 10 kilometrokoa baino handiagoa bada, 0,08 euro kilometroko ordainduko da, edota bestela, erabilitako garraio publikoaren kostu osoa.

- Ohiko lantokitik at egindako bileretara joateko 0,16 euro kilometroko ordainduko da, edota bestela erabilitako garraio publikoaren kostu osoa.
 - Bileraren iraupena egiaztatzen denean, eta beraz, bazkaria justifikatua balego, 8 euro ordainduko dira.
 - Sindikatuak ordainduko ditu bileretara joan beharrak autopistako bidesariak eta aparkatzeak eragindako kostuak.
- ⇒ Sindikatuan betetzen dutenen zeregina erabateko arduralditzat hartzen ez den arren, baina lurralde zein sektoreko egituren batean arduraren bat balute, honako konpentsazioak jasoko lituzkete:
- Sindikatuak deitutako edota berau ordezkatzuz bileretan esku hartzeko 0,08 euro kilometroko ordainduko da, edota bestela, erabilitako garraio publikoaren kostu osoa.
 - Bileraren iraupena egiaztatzen denean, eta beraz, bazkaria justifikatua balego, 8 euro ordainduko dira.
 - Bileretara joan beharrak autopistako bidesariak eta aparkatzeak eragindako kostuak ordainduko ditu sindikatuak.
- ⇒ Sindikatuan erabateko arduraldiaz lan eginez, eta sindikatuaren erabakiz, sindikatuan sartzean ziharduten lantokiaren kokapena aldatu bazaie, edota aldatuko balitzaie, eta lehengo bizileku berean biziko balira, honako konpentsazioak jasoko dituzte:
- Norberaren etxebizitza eta lantokiaren arteko distantzia 10 kilometro baino txikiagoa bada, sindikatuak ordainduko du garraio publikoaren kostua (autobusa, trena, metroa, topoa, etab). Distantzia aipaturiko 10 kilometrokoa baino handiagoa bada, 0,16 euro kilometroko ordainduko da, edota bestela, erabilitako garraio publikoaren kostu osoa.
 - Norberaren etxebizitza eta lantokiaren arteko distantzia 25 kilometro baino handiagoa bada, erabateko arduraldiaz dihardutenek aukera lezaketeko dagozkien kilometrajea kobratzearen eta jatorduko 8 euro kobratzearen artean.
 - Norberaren etxebizitza eta lantokiaren arteko distantzia 10 kilometro baino handiagoa balitz, sindikatuak autopistako bidesariak eta aparkatzeak eragindako kostuak ordainduko lituzke.
- ⇒ Aurreko salbuespenetan izan ezik, ez dira, ohiko lantokian, ordainduko aparkatzeak edota OTAk eragindako kostuak.

Konfederazio, lurralde eta sektoreko idazkariak dagokien egituran duten arduraren arabera, kasu batean, zein bestean, delako konpentsazioak jasotzeko eskubidea izan dezaketen pertsonen zerrenda eginen dute. Era berean, hauei egokituko zaie hileroko delako konpentsazioak jaso dezaketen pertsonen zerrenda egitea eta Diru Zaintza Nazionalari horren berri ematea.

Antolakuntza beharrak medio sindikatuak liberatu bati lekuz mugitzea proposatzen dion kasutan, Komite Exekutiboak atal honetan araututako dieten balizko egokitzea aztertuko du.

9.- PRESOKAK.

Arrazoi politikoengatik dedikazio osoko pertsona kartzelan sartzen badute sindikatuak egoera luzatzen den bitartean urte horretarako onartutako hileko konpentsazio ekonomiko gordinaren %20a jasoko du.

Behin egoera honi amaiera eman ostean, berriz sar liteke sindikatuan: baldin eta horrela nahi izango balu.

10.- EZINTASUN IRAGANKORRAGATIKO BAJA.

Gaixotasun edota istripu kasu guztietan sindikatuak ez beharra izan duenari ordurarte jasotzen zuen ordain ekonomikoaren 100eko 100a osatuko dio lehenengo egunetik.

Sindikatuari egotzi ez zatzaizkion arrazoiak medio, pertsona horrek ez baditu bajaren parte edo berrespenak behar den epeetan eramaten, sindikatuak ez du ordainik osatuko.

11.- LAN OSASUNA.

Dedikazio osoz diharduten militanteen lan baldintzak ez daitezen Osasunaren kaltegarri izan bermatuko da.

Xede hau lortzearren, lan arriskuak prebenitzeko beharrezkoak izango diren jarduerak egingo dira, hala nola:

Arriskuen ezagutza, ezabatu ezin izan ez diren arriskuen ebaluazioa, plangintza prebentiboa, trebakuntza, berariazko osasunaren zaintza (lanpostuaren, adinaren eta generoaren arabera), etab.

Sindikatura delako prebentzio jardueraz arduratuko den edota hauek koordinatuko duen jendeaz hornituko da.

12.- ASEGURUA.

Asegurua egingo zaie sindikatuan dedikazio osoz sartuko direnei. Honek, besteak beste, istripuak eragindako heriotza hartuko du bere gain.

13.- ERRETIROAK

Dedikazio osoa duten pertsonak 60 urteekin jubilatzea ahalbideratuko duten aukerak eta tresnak aztertuko dira, hala nola, ordezkatzeko kontratua.

14.- FORMAZIOA.

Gaitasun eta funtzionamendu eraginkorrena xedea izanik, sindikatuak dedikazio osoz aritzen diren pertsonen formazio iraunkorra bermatuko du, horretarako, norberaren ardura osatzen duten eginkizunei egokitutakoak izango diren formazio ekimenak burutuko dituelarik.

Sindikatuak era berean, bermatu beharko du behar den heziketa teoriko-praktiko-esperimentalak, non honek bermatuko duen arduren aldaketa: kontuan hartuz, adin-mugak eta hauek burutzeko estatutueta arautzen den aldia. Heziketa ekimenek erraztu beharko dute trebatze teorikoa zein praktikoa, eta beraz, esperientziaren transmisioa bermatuko dute. Trebatze ekimen hauek ardura berria hartuko dutenez, nahiz zeregin berriak beteko dituztenentzat: beste batean berkokatzen direlako, bideratuko dira.

Sindikatuak bere egiten dituzten aukera berdintasunean eta euskaran indarrean dauden egitasmoetatik eratortzen diren beharrezko trebatze ekimenak egituratzeko konpromisoa eta bermea.

15.- PLAN ESTRATEGIKOAK.

Une honetan sindikatua bi plan estrategiko garatzen ari da, hizkuntza normalkuntzarako den EUSLAB eta Aukera Berdintasun Plana.

Plan hauen garapen progresiboaren ondorio diren antolakuntza eta funtzionamendu mailako erabakiak nazio komiteak hartuko ditu, baita araudi honetan jasotzen ez diren gaiei buruzkoak. Erabakiak behin behineko izaera izango dute Nazio Biltzar batek onestu edo zuzendu ezean.

16.- EGOKITZE ALDIA.

Sindikatuan dedikazio osoz aritzen diren pertsonen kolektiboan sartu aurretik, sei hilabetekoa izango den elkar ezagutze eta egokitze epea egongo da.

Epe horretan pertsona horrek araudi honetan jasotako eskubide eta bete behar berdinak izango ditu.

17.- BATERAEZINTASUNAK.

Sindikatuan dedikazio osoz aritzen den edonork beste enpleguen bat bilatzeari ekingo balio, oposizioetara, hautaketa prozesuetara aurkezteko edota delako xedetarako zerrendetan izena emateko gestioak egiteari ekingo balio, LABeko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta honela zuzendaritza honek egokien deritzan erabakiak har ditzan eragindako pertsona ordezkatzeko xedean.

18.- SINDIKATUAN BAJA EMATEA.

Sindikatuan baja ematen zaien pertsoneri (zigorragatik, kontratu amaieragatik, frogarako epea edo borondatezko bajak direnean salbu) urte betean soldata erreala bitarte osatuko zaie eskubidez daukaten langabeziagatiko prestazioa.

19.- HUTSEGITEAK ETA NEURRIAK.

a) Huts egiteen kalifikazioa.

Ondoren zehazten dugun huts egiteen sailkapenaren arabera, Estatutuetan araututako prozesu eta bermeak jarraituaz zigortzeko espedientea irekitzeko aukerak daude:

- **Huts egite arinak.**

- Laneko ordutegian huts egitea.
- Sindikatuak deitutako jardueretan arrazoirik gabe kale egitea.

- **Huts egite larriak.**

- Hilabete batean hiru hutsegite arinak egitea.
- Arduretan utzikieriaz aritzea.
- Sindikatuaren organoetan hartutako erabakiak ez betetzea, araudi honetan zein Estatutuetan jasotako erabakiak barne.

- **Huts egite oso larriak.**

- Urte baten bi hutsegite larriak egitea.
- Sindikatuaren organoetan hartutako erabakien kontra aritzea, araudi honetan zein Estatutuetan jasotako erabakiak barne.

b) Neurri motak.

Arinak: Idatziz edo ahoz ohartaraztea.

Larriak: afiliazio-etendura, dedikazio-araubidea eta dagokion hilabete bat eta hiru hilabete arteko diru-konpentsazioa

Oso larriak: Sindikatutik kaleratzea.

c) Preskripzioa.

Dagokion organoak zigorrak erabakitzeko daukan eskuduntza, eta hutsegite arinei dagokienez, hilabete batean preskribituko da; larriei dagokienez bi hiletan eta oso larriei dagokienez hiru hiletan. Delako epea gertaeraren berri izaten den unean ekingo zaizkio zenbatzeari, eta edonola ere, arinak jaso eta 3 hilabetera, larriak jazo eta 6 hilabetera eta oso larriak jazo eta urte batera.

20.- ISUN EKONOMIKOAK

LABen ekimenetan, sindikatuak deitutako ekimenetan edota LABek eragindako deialdiaren kudeaketa burutu ondoren ardura ekonomikoren bat eragingo balitz, LABek bere gain hartuko luke delako isuna.

21.- BARNE ARAUDIAREN INTERPRETAZIOA.

Araudi hau interpretatzerakoan sortu daitezken zalantza eta kontrako iritziak hasiera batean Nazio Komiteak argituko ditu. Nazio Komiteak egiten duen interpretazioarekin ere zalantzak iraunez gero, dagokion pertsonak Berme Batzordera jo dezakete, honen ebazpena gora jotzerik gabekoa delarik.

22.- ARAUDI HONEN EZARPENA

Nazio Biltzarrak onetsi orduko sartuko da indarrean araudi hau, 8. artikuluan aipatzen dena izan ezik. Nazio Komiteak adieraziko du noiz sartuko den indarrean delako artikulua.

2003ko Urtarrila.